

**Hezkuntza publikoan lan baldintzak hobetu.**
Hemen eta orain erabakita.

**Prentsa oharra:**
SUKALDE/GARBIKETA
2025-01-29

# Hezkuntza Publikoko Sukalde eta garbiketan ezarritako gehiegizko gutxieneko zerbitzuek eta hauek agintzerakoan Eusko Jaurlaritzak egindako akatsak grebaren jarraipena baldintzatzea dute helburu

---

## Hala ere sindikatu deitzaileek jarraipen oso zabala espero dute egun dituzten datuen arabera

Urtarrilaren 30-31 eta otsailaren 19-20ko grebetara Hezkuntza publikoko sukalde eta garbiketako 1.000 langile inguru daude deituak. Grebak deitu dituzten LAB, ELA eta CCOO sindikatuek salatu nahi dute Eusko Jaurlaritzak ezarritako gutxieneko zerbitzuak gehiegizkoak direla.

Gainera, akats bat egon da aginduan eta gaur arratsaldeko 14.00ak arte ez da zuzendu. Honek nahasmen handia suposa dezake. Izan ere garbiketako langile guztientzako %50eko Zerbitzu minimoak ezarri zituen hasieran. Sindikatuok aurkeztutako idatzi baten ondorioz agindua zuzendu du eta Haur Hezkuntzan eta hezkuntza bereziko zentroetara mugatu ditu garbiketako Zerbitzu minimoak. Baina zuzenketa hau oso berandu dator eta honek eragina izan dezake.

Gutxi balitz Hezkuntza saila gutxieneko zerbitzuen aginduaren aplikazioa modurik zorrotzenean interpretatzen ari da, langile kopuru ahalik eta handiena lanera joatera behartzeko. Bestalde, grebak prentsan iragarri ostean eskatu diren lizentzia edo baimen egunak ez dituela onartuko eta eskatuta zituztenak ez dituela ordezkatuko jakinarazi digu. Modu horretan, greba egiteko hautua egin duten hainbat langile zerbitzu minimo gisa lan egitera behartuz.

Honekin guztiarekin Jaurlaritzak grebaren jarraipena baldintzatu nahi du.

Hala ere, gaur gaurkoz jasotako datuen arabera, grebarako eskubidea izango duten langileen artean, grebak jarraipen oso zabala izango duela aurreikusten dute sindikatuek.

LAB · ELA EUSKAL SINDIKATUA · CCOO irakaskuntza



**Mejora de las condiciones laborales en la educación pública.**
Decididas aquí y ahora.

**Nota de prensa**
COCINA/LIMPIEZA
29-01-2025

# Los servicios mínimos establecidos en Cocina y Limpieza de la Educación Pública y el error del Gobierno Vasco en la orden inicial pretenden condicionar el seguimiento de la huelga

---

## A pesar de estas trabas, los convocantes sindicales esperan un seguimiento muy amplio en función de los datos de los que disponen

A las huelgas del 30-31 de enero y del 19-20 de febrero están llamados y llamadas cerca de 1.000 trabajadores y trabajadoras de cocina y limpieza de la educación pública. Los sindicatos LAB, ELA y CCOO, convocantes de las huelgas, quieren denunciar que los servicios mínimos decretados por el Gobierno Vasco son abusivos.

Además, ha habido un error en la orden y no se ha corregido hasta las 14.00 horas de esta tarde. Esto puede suponer una gran confusión. De hecho, inicialmente estableció unos Servicios mínimos del 50% para todo el personal de limpieza. A raíz de un escrito presentado por los sindicatos ha rectificado la orden y ha limitado los Servicios mínimos de limpieza a los centros de educación infantil y a los centros específicos de educación especial. Pero esta rectificación llega tarde y puede influir.

Por si fuera poco el departamento de Educación está interpretando de la forma más estricta la aplicación de la orden de servicios mínimos para obligar al mayor número posible de trabajadores y trabajadoras a acudir al trabajo. Por otra parte, nos informa que no ha aceptado las solicitudes de licencias o días de permiso pedidas después de hacerse pública en prensa la convocatoria de huelgas y las que estaban solicitadas no las van a sustituir. Obligando a trabajar como servicio mínimo a multitud de trabajadores y trabajadoras que han optado por la huelga.

Con todo ello el Gobierno pretende condicionar el seguimiento de la huelga.

No obstante, según los datos recogidos hoy por hoy los sindicatos prevén un seguimiento muy amplio de la misma entre los trabajadores y trabajadoras que tendrán derecho a la huelga.

LAB · ELA EUSKAL SINDIKATUA · CCOO irakaskuntza